

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2023ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat helburu ezarri ditu, eta helburu horietako bat da euskararen erabilera sustatzea. Hain zuzen, euskara gizarte-esparru guztietara zabaltzeko ahalegin horretan, uste da ezinbestekoa dela gizartearen esparru hurbilenean ere eragitea: udalerrian.

Horretarako, urtero dirulaguntza-lerro bat izaten du udal, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei laguntza emateko euskararen erabilera sustatzeko funtsezko lanean.

Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean oinarritzen da proposatzen den xedapen orokor honi dagokion eskumena; izan ere, lege horrek Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, para las actividades que realicen para la promoción, difusión o normalización del uso del euskera durante el ejercicio 2023.

La Diputación Foral de Bizkaia se ha marcado diversos objetivos, entre ellos, promocionar el uso del euskera. Precisamente, en los esfuerzos de extender el euskera a todos los ámbitos sociales, se estima imprescindible incidir en el ámbito más cercano a la propia sociedad: el municipio.

Para ello, cuenta anualmente con una línea de subvención que tiene por objeto colaborar con los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, con el fin de apoyarlas en su labor fundamental en el ámbito de la promoción del uso del euskera.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta se fundamenta en la Ley del Parlamento Vasco 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, que confía a los poderes públicos de la Comunidad



du euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea.

Hortaz, 26. artikulua xedatzen du euskal herri-aginteei neurri egokiak hartuko dituztela eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herriarrek salerosketako, kulturako, elkarreketako, kirolak, erlijiozko edota beste edozein motatako jardura guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak (horren bidez Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten da) ezartzen du Sail horren eskumena dela euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea gizartearen alor guztietan; hala, osatu egiten da foru-dirulaguntzetarako deialdi honen esparru juridikoa.

Halaber, dekretu honen izapidetzean printzipio hauekin bat jarduten da: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herriarren parte-hartzea eta kontuak ematea. Izan ere, hala ezartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 81/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua, non printzipio horiek modu orokorrean ezartzen diren. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Autónoma Vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y normalización del uso del euskera.

Así, dispone en su artículo 26 que los poderes públicos vascos deberán tomar las medidas oportunas y poner los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a la ciudadanía el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte, atribuye a este Departamento la competencia para la promoción del conocimiento y del uso del euskera en todos los ámbitos de la sociedad, completando de este modo el marco jurídico de la presente convocatoria de subvenciones forales.

Asimismo, en la tramitación de este decreto se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.



Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela,

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.
2. Informe Jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Informe de control económico.
5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales



besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirolaren Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea.*

2023ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Sailak emango dizkien dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de Decreto Foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se concedan por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, para las actividades que realicen para la promoción, difusión o normalización del uso del euskera durante el ejercicio 2023.

Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*



Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Se habilita a la Diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte.
LOREA BILBAO IBARRA.

Ahaldun Nagusia / El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ



2023KO EKITALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU, ZABALDU EDO NORMALIZATZEKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN UDALEI, UDAL ERAKUNDE AUTONOMOEI ETA MANKOMUNITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI-ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LOS AYUNTAMIENTOS, ORGANISMOS AUTÓNOMOS MUNICIPALES Y MANCOMUNIDADES, PARA LAS ACTIVIDADES QUE REALICEN PARA LA PROMOCIÓN, DIFUSIÓN O NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA DURANTE EL EJERCICIO 2023.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Foru-dekretu honen arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko egiten diren proiektu eta jarduera hauek jaso dezakete dirulaguntza:

a) Toki-eremuko kultur, kirol, aisia eta astialdiaren arloko elkarrekin zein mugimenduetan euskararen erabilera sustatzen duten programak eta jarduerak, bereziki haur eta gazteen arlokoak, eta, oro har, HAKOBA Herri Agintek Koordinatzeko Batzordeak eta/edo Bizkaiko Euskara Bizia batzordeak lehentasunezko zatitakoak, Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartu dituenen. Horiez gainera, berariaz hartuko dira kontuan *Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024* dokumentuan adierazitako lan-lerro estrategikoetako lehen eta bigarren gomendioak, Euskararen Aholku Batzordeko barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak eginak eta 2021ean argitaratuak.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Los proyectos y actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral, que deberán referirse a la promoción, divulgación o normalización del uso del euskera en el Territorio Histórico de Bizkaia, son las siguientes:

a) Programas y actividades que promuevan el uso del euskera en asociaciones y movimientos culturales, deportivos, de ocio y tiempo libre del ámbito local, con especial incidencia en el campo de la infancia y juventud y, en general, aquellos señalados como prioritarios por la Comisión de Coordinación de las Administraciones Públicas, HAKOBA, y/o por la Comisión Euskara Bizia de Bizkaia y asumidas por la Dirección General de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte. Además, se tendrán especialmente en cuenta las recomendaciones 1 y 2 dentro de las líneas estratégicas contempladas en el documento *El entorno digital del euskera: recomendaciones 2021-2024*, elaborado por la Comisión Especial del Consejo Asesor del Euskera para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital y publicado en el año 2021.



b) Hizkuntza sustatzeko estrategikoak diren toki-eremuko kolektiboetan euskararen erabilera sustatzen duten programak eta jarduerak, edo bereziki eragin nahi den sektore jakinetan erabilera sustatzen dutenak, hala nola lan-munduan, etorkinen artean edo sare sozialetan.

c) Toki-eremuko herritarrek euskara teknologia berrietan erabil dezaten sustatzeko programak eta toki-erakundeetako ezagutzari buruzko edukiak sarean jartzea xede duten *Herripedia* proiektuak.

d) Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten programak, ondare hori gizartearen barruan erabili ahal izateko (kantuek, bertsoak, euskalkiak, etab.). Programok balorazio berezia izateko, nahitaezkoa izango da Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren aldeko txostena izatea, eta eskatzaileek eurek ekarri beharko dute. Onirizpena urtero ekarri behar da edo bertan zehaztu proiektuaren iraupena.

e) Deialdi hau izapidetzean indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) entitate eskatzailearen lurralde-eremuan egin eta ezartzeko programak.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoari jarraituz, dirulaguntza jasotzen duten proiektuek ez dute hizkera sexistarik erabiliko ez zuzenean, ez beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta

b) Programas y actividades que fomenten el uso del euskera en colectivos de la ciudadanía del ámbito local estratégicos para la promoción de la lengua o que promuevan su uso en sectores concretos en los que se quiere incidir especialmente, tales como el mundo laboral, población inmigrante o relaciones sociales.

c) Programas tendentes a fomentar el uso del euskera en nuevas tecnologías entre la vecindad del ámbito local correspondiente así como los proyectos *Herripedia* cuyo objetivo es ubicar en la red contenidos relativos al conocimiento de los entes locales.

d) Los programas destinados a recopilar, salvaguardar y recuperar para su uso social el patrimonio del euskera local (canciones, versos, dialectos, etc.). Para que estos programas tengan una valoración específica, será preciso que cuenten con el informe favorable de Euskaltzaindia o del Instituto Labayru, recabada por la entidad solicitante. Dicha opinión deberá ser aportada todos los años o en la misma deberá constar la duración del proyecto.

e) Programas para la realización e implantación en el ámbito territorial de la entidad solicitante, del Plan Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) del Gobierno Vasco que esté en vigor en el momento de la tramitación de esta convocatoria.

2. De conformidad con la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, los proyectos subvencionados deberán hacer un uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) a lo largo de su desarrollo, en los documentos y soportes



euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan).

Sexua dela-eta diskriminatzen duten jarduerak edo ekintzak ezingo dira diruz lagundu, inondik nora.

3. Dirulaguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2023ko ekitaldiaren barruan garatu beharko dira.

4. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Deialdi hau izapidetzean indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) ezarritako helburuekin bat ez datozen proiektuak.

b) Nola edo hala udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateak barrutik euskalduntzeko programak eta ekintzak, bai eta udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateen barne-erabilerako planak ere. Halaber, udalerriko biztanleei euskara ikasteko ematen zaizkien dirulaguntzak.

c) Helburu asistentziala duten programak eta ekintzak.

d) Jai-egitarauak, herriko jaien ingurukoak edo urtero ospatzen diren jaien lotutakoak. Hala ere, horrelakoak diruz lagungarriak izango dira, baldin eta sustatzailea A eta B eredu soziolinguistikoetako udala, udal erakunde autonomoa nahiz mankomunitatea bada eta 10.000 biztanle baino gutxiago baditu.

e) Aldundiaren dirulaguntza zuzena duten programak edo Bizkaiko Foru Aldundiaren beste deialdi batean dirulaguntza jasotzen dutenak.

f) C eta D eredu soziolinguistikoak (biztanleen % 50 edo gehiago euskaldunak dira) dituzten

que produzcan directamente o a través de terceras personas o entidades.

En ningún caso se subvencionarán actividades o acciones que discriminen por razón de sexo.

3. Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2023.

4. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Los proyectos que no se ajusten a los objetivos establecidos por el Plan Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) del Gobierno Vasco que esté en vigor en el momento de la tramitación de esta convocatoria.

b) Los programas y acciones dirigidos, de un modo u otro, a la euskaldunización interna de los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, así como los planes de uso interno de los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, además de las subvenciones para aprender euskera para los habitantes del municipio.

c) Los programas y acciones de contenido asistencial.

d) Los programas festivos o ligados exclusivamente a las fiestas populares o a la celebración de festividades anuales, salvo los promovidos por ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades que pertenezcan a los modelos sociolingüísticos A y B y que tengan menos de 10.000 habitantes.

e) Los programas objeto de subvención directa foral o aquellos que reciban subvención de otra convocatoria de la Diputación Foral de Bizkaia.

f) En el caso de programas promovidos por ayuntamientos, organismos autónomos



udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateek sustatutako programen kasuan, kanpo geratuko dira euskararen sustapen, zabalkunde eta normalizazioa helburu nagusi eta espezifiko izan beharrean, kulturari (musika-kontzertuak, antzerkia...) edo aisialdiari (udalekuak, adibidez) lotutako helburuak dituztenak.

g) Euskararen erabilera zenbaterainokoa den neurtzeko edo inkesta soziolinguistikoak egiteko programak.

h) Beste entitate edo pertsona dirulaguntzak ematea xede duten programak, salbu proiektua partzialki edo bere osotasunean garatzeko irabazi-asmorik gabeko entitateekin egindako hitzarmenak baldin badira.

i) Sexu bien arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten edo sexuagatik diskriminatzen duten proiektuak.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek euskara hutsezko hedabideen funtzionamendua ziurta dadin 2022-2024 aldirako izenpetutako hitzarmenaren esparruan, 2023ko ekitaldian dirulaguntza jasotzen duten edo deialdi honen aurre-aurreko ekitaldian dirulaguntza jaso duten euskarazko hedabideei edozein motatako ordainketak (laguntza, dirulaguntza, kontratua, harpidetza, aleen erosketa, publizitatea, eta abar) egiteko proiektuak.

5. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zaltzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak badira eta ezarritako epearen barruan egiten badira baina dirulaguntza jaso dezaketen

municipales y mancomunidades que pertenezcan al modelo sociolingüístico C y D (50 % o más de población vasco parlante), aquellos cuyo objetivo específico y principal no sea la promoción, difusión y normalización del euskera en sí misma, sino otros más propios del ámbito cultural (actuaciones musicales, de teatro...), recreativo (campamentos de verano...), etc.

g) Los programas destinados a la medición del uso del euskera o encuestas sociolingüísticas.

h) Los programas cuya finalidad sea otorgar subvenciones o ayudas a otras entidades o personas, salvo que se trate de convenios con entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo parcial o total del proyecto.

i) Proyectos que no garanticen la igualdad de trato entre los dos sexos o que discriminen por razón de sexo.

j) Los proyectos consistentes en realizar cualquier tipo de desembolso (ayuda, subvención, contrato, suscripción, adquisición de ejemplares, publicidad, etc.) a medios de comunicación en euskera que reciban subvención en el ejercicio 2023 o la hayan recibido en el ejercicio inmediatamente anterior a la presente convocatoria, en el marco del Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Araba/Álava, Bizkaia y Gipuzkoa con el fin de asegurar el funcionamiento de los medios de comunicación íntegramente en euskera, periodo 2022-2024.

5. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de



gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

6. Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Udal entitatearen jardunari dagozkion pertsonal-gastuak, salbu eta eskualde batetik gorako eragin-esparrua duten mankomunitateen kasuan.

b) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

c) Banku-kontuetako interes zordunak.

d) Interesak, errekaraguak, administrazio-zehapenak eta zigor-zehapenak.

e) Prozedura judizialen gastuak.

f) Zeharkako tributuak (BEZa barne) ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaitezke. Kasu horretan, gastuen zenbatekoek BEZik gabe agertu behar dute, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu gauzatuan. Era berean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak errentaren gaineko zerga pertsonalak.

g) Oro har, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

7. Foru-dekretu honen helburua entitate eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira ezein kasutan finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria. *Entitate onuradunak.*

adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

6. No tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes:

a) Los gastos de personal intrínsecos a la actividad de la entidad municipal, salvo en el caso de mancomunidades cuya área de actuación abarque más de una comarca.

b) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

c) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

d) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

e) Gastos de procedimientos judiciales.

f) Los tributos indirectos (y, entre ellos, el IVA) no se considerarán gasto subvencionable cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En tal caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto sin IVA. De igual manera, tampoco resultarán gasto subvencionable los impuestos personales sobre la renta.

g) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

7. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, en ningún caso la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

Base 2. *Entidades beneficiarias.*



1. Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomoak eta mankomunitateak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, baldin eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako egoeretako batean sartuta ez badaude.

2. Halaber, honako pertsona juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzak emateko prozesu honetan parte hartu eta onuradun izan baldin eta:

a) berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean.

b) beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia que no estén incurso en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. No podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas jurídicas:

a) que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción.

b) cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

II. TITULUA

Araubide juridikoa

3. oinarria. *Araudi aplikagarria.*

TITULO II

Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*



1. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Era berean, erakundearen izaeraren arabera aplikatzekoak zaizkion publikotasun aktiboko arauak bete beharko ditu erakundeak.

4. oinarria. *Arau-haustea eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduko IV. tituluan xedatutakoa ere.

III TITULUA

Prozedura

1. Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Asimismo, la entidad queda sujeta al cumplimiento de las normas de publicidad activa que le sean de aplicación atendiendo a su naturaleza.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV del Reglamento de desarrollo de esta.

TÍTULO III

Procedimiento



5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua araberak, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 16an hasiko da eta 2023ko otsailaren 13ko 13:30etan amaituko da.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Entitate batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren egitarauen kasuan, zehaztu beharko da aurrekontuan zein den entitate bakoitzak egiten duen ekarpena eta zein gastu hartzen dituen bere gain; eskabidea, betiere, entitate batek aurkeztuko du, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, eskabide horiek ezetsi egingo dira.

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el 16 de enero de 2023 hasta el 13 de febrero de 2023 a las 13:30.

Base 6. *Documentación a adjuntar con las solicitudes.*

1. Las solicitudes deberán ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En el caso de los programas cuya realización corra a cargo de diferentes entidades, en colaboración, se deberá especificar en el presupuesto la aportación y los gastos correspondientes a cada entidad, si bien la solicitud la deberá realizar una sola de ellas, de conformidad con lo establecido en el artículo 10.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. De no proceder así, se desestimarán dichas solicitudes.



2. Dokumentazio hau erantsi beharko da:

a) Programatutako jardueraren proiektu xehatua. Honako hau zehaztu behar du, gutxienez:

1) Proiektuaren deskripzioa.

2) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren edo Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) zer helburu lortu nahi diren, bakarrik entitate hauen kasuan: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko urte anitzeko plan estrategikorik onartuta ez duten entitateen kasuan.

b) Foru-dekretu honen 10. oinarriaren 1.b) apartatuko irizpidea baloratzeko, eskabidea egiten duten egunean, ziurtagiri bat aurkeztu behar dute Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko urte anitzeko plan estrategikoa onartuta dutela egiaztatzeko. Ziurtagiri horren ordez, Eusko Jaurlaritzaren egiaztagiria onartuko da. Planak indarrean egon behar du, dela bere indarraldiaren barruan dagoelako, dela indarraldia luzatuta daukalako; azken kasu horretan, egoera hori egiaztatzen duen udal erabakia aurkeztu behar da.

c) 1. oinarriaren 1 zenbakiko d) letran aipatutako kasuetan, Euskaltzaindiaren edo Labayru Institutuaren txostena.

d) Foru-dekretu honen 10. oinarriaren 1.f) apartatuko irizpidea baloratzeko, eskabidea egiten duten egunean, hala bada, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana edo programa onartuta duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar dute; bestela, erakundeak berdintasunaren arloko udal eskumena —edo eskumen mankomunatua—

2. Deberá adjuntarse la siguiente documentación:

a) Un proyecto detallado de la actividad programada, que al menos incluya:

1.º Descripción del proyecto.

2.º Objetivos del Plan General de Promoción del Uso del Euskera o del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) que se persiguen, únicamente en los casos de entidades que no tengan aprobado el plan estratégico plurianual para el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera o del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP).

b) A los efectos de la valoración del criterio de la base 10 apartado 1.b) de este decreto foral, justificación de tener aprobado el plan estratégico plurianual para el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera o del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) el día en que formulen su solicitud de subvención; en su lugar, se aceptará la acreditación del Gobierno Vasco. Este plan deberá encontrarse vigente, bien porque se encuentre dentro de su propio marco temporal de vigencia, o bien porque este se hubiera prorrogado, en cuyo caso habrá de constar el acuerdo municipal correspondiente que así lo acredite.

c) En los casos de la letra d) del apartado 1 de la base 1, el informe de Euskaltzaindia o el Instituto Labayru.

d) A los efectos de la valoración del criterio de la base 10 apartado 1.f) de este decreto foral, justificación de tener aprobado el plan o programa municipal de igualdad entre mujeres y hombres en el caso de que así sea, o bien descripción de cómo organiza y desarrolla su competencia municipal -o mancomunada- en materia de igualdad, de



nola antolatu edo garatzen duen azaltzen duen agiria, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluko 27. apartatuan eta 54.d) artikuluko 10. apartatuan ezarritakoarekin bat.

e) Foru-dekretu honen 10. oinarriaren 1.g) apartatuko irizpidea baloratzeko, eskabidea egiten duten egunean, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko proiektuaren edukari buruzko justifikazio-txostena aurkeztu behar dute (proiektuan parte-hartzea, proiektuaren zabalkundea eta ebaluazioa, sexuaren arabera datuak bereizita jasotzea, ezarritako estereotipo eta rolerkin haustura eta abar).

f) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Halaber, Egoitza elektronikoan dagoen ereduan bete beharko dira datu hauek:

a) Zer baliabide ekonomiko dauden proiektua garatzeko: sarreraren eta gastuen aurrekontu zehaztua, entitateak proiektua garatzeko zer finantza-baliabide dituen zehaztuta.

b) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko urte anitzeko plan estrategikoari dagokionez, oinarri honetako bigarren apartatuko b) letran aipatua, datu hauek bete beharko dira:

1) Onespen data.

2) Indarraldia.

conformidad con los artículos 17.1 apartado 27, y 54 d) apartado 10, de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

e) A los efectos de la valoración del criterio de la base 10 apartado 1.g) de este decreto foral, informe justificativo sobre el contenido del proyecto con relación a la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres (participación en el proyecto, difusión y evaluación del proyecto, datos desagregados en razón del sexo, ruptura con estereotipos y roles establecidos, etc.).

f) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Asimismo, se deberán cumplimentar en el modelo disponible en la sede electrónica los siguientes datos:

a) Medios económicos con los que se cuenta para el desarrollo del proyecto: presupuesto detallado de ingresos y gastos, con indicación de los recursos financieros de la propia entidad previstos para la realización de este.

b) En relación con el plan estratégico plurianual para el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera o del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) mencionado en la letra b) del apartado dos de la presente base, se deberán cumplimentar los siguientes datos:

1.º Fecha de aprobación.

2.º Periodo de vigencia.



3) Indarraldia luzatu bada, zein ebazpenen bidez eta noiz arte luzatu den adierazi beharko da.

c) Proiektua zein taldetan sartzen den, kontuan hartuta foru-dekretuko 10. 1.a) oinarrian josatoka zortzi proiektu-motak.

d) Euskaldunen portzentajea udalerriko biztanle guztiekin alderatuta.

e) Toki-entitateak 2022an euskarako biztanleko erabili duen aurrekontua.

3.º En caso de haberse prorrogado su vigencia, se deberá mencionar a través de qué resolución se realizó y hasta cuándo.

c) Grupo al que pertenece el proyecto de acuerdo con los ocho tipos especificados en la base 10 1.a) del presente decreto foral.

d) Proporción de vascohablantes con relación a la población total del municipio.

e) Presupuesto de la entidad local dedicado al euskera en 2022 por habitante.

7. oinarria. Dokumentazio egiaztagarria.

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei eta haien ordezkariak buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, egoitzan edo web orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren bitartez:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

Base 7. Documentación verificable.

El Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las personas interesadas y sus representantes, en su caso, necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Los referidos datos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada, en el modelo oficial disponible en sede o a través de la página web:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>



b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

8. oinarria. Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietaoren bat aurkeztu ez bada, orduan errekerimendua egingo zaio entitate interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, adieraziko zaio eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con Seguridad Social.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Euskera podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. Subsanción o mejora de las solicitudes.

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Euskera podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.



9. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

Dirulaguntza hauek norgehiagoka eta hainbanaketa erabiliko dituen sistema misto baten bidez emango dira:

a) Norgehiagoka: epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 10. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Foru-dirulaguntzak 85 puntu edo gehiago lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidaren ezarritako zenbatekoa mugaz izanik.

b) Geratzen den kredituaren hainbanaketa ezarriko da epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa eta 84 puntu (biak barne) arteko emaitza lortzen duten eskabideen artean.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.1 artikulua araberako dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izan arren, hainbanaketa erabili daiteke, salbuespenen gisa, aipatutako 20.1 artikuluan oinarrituta, oinarri-arauetan aurreikusita badago. Hainbanaketa da puntuazio-tarte honetan dirulaguntzak emateko prozedura egokiena; izan ere, aukera ematen du proiektu gehiagori laguntza emateko, eta hala deialdiaren aplikazio-eremua zabaltzen da.

10. oinarria. *Ebaluazio irizpideak.*

Base 9. *Procedimiento de concesión.*

La concesión de las presentes subvenciones se realizará mediante un sistema mixto de concurrencia competitiva y prorrateo:

a) Concurrencia competitiva mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en la base 10, proponiendo la adjudicación de las subvenciones forales a aquéllas que hayan obtenido 85 o más puntos, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

b) Prorrateo del crédito disponible restante entre las solicitudes que hubieran obtenido una puntuación comprendida entre la mínima establecida por el tribunal calificador y 84 puntos, ambos incluidos.

Si bien, el procedimiento ordinario de concesión de subvenciones es el de concurrencia competitiva, de conformidad con el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el procedimiento de prorrateo, siendo excepcional, encuentra amparo legal en el propio artículo 20.1 citado, siempre que así se prevea en las bases reguladoras. El prorrateo se considera el procedimiento de concesión más adecuado en este tramo de puntuación, en tanto que permite otorgar subvención a un mayor número de proyectos, aumentando así el alcance de la convocatoria.

Base 10. *Criterios de valoración.*



1. Dirulaguntzetarako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko eta haien zenbatekoa zehazteko, epaimahai kalifikatzaileak ondorengo irizpideak eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

a) Jarduera mota, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera (eman beharreko kopuru osoaren 40 puntu emango dira gehienez, jardueraren izaera, edukia eta izan dezakeen ondore biderkatzailea kontuan hartuta):

1) Lehentasunezko zatitako proiektuak; sailkapen horren barruan, hiru proiektu mota hauek sartuko dira:

Foru dekretu honen bigarren oinarriarekin bat, deialdi honetan parte har dezaketen entitateen artean lankidetzan egindako proiektuak. Ez dira kontuan hartuko udal-erakunde autonomo baten eta udalaren edo udal-mankomunitatearen, udalaren eta udala kide den udalerrri-mankomunitatearen artean edo toki-erakunde berak sortutako udal-erakunde autonomoen artean lankidetzan gauzatzen diren proiektuak.

